

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA

HAUR HEZKUNTZA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Ikasleekin jarduerak egiteko ideia hauekin proposamen ireki eta moldagarria egin nahi da. Ideiak beraien artean konbinatzeko modukoak dira. Jarduera hauek aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independentean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa.

Ideiak hezkuntza etapaka aurkeztu eta iradoki dira, antzeko esperientziak egin dituzten ikasleen adinaren arabera. Nolanahi ere, horiek guztiak **beste adin bateko ikasleen interes eta ezaugarriei egokitzeko modukoak dira.**

"NIK EGITEN DUT, ZUK EGITEN DUZU, NESKAK EGITEN DU, MUTILAK EGITEN DU..."

Proposamena zera da: ikasleekin psikomotrizitate maila desberdineko (astuna eta arina) joko zinetikoak, gorputz jokoak edo eskukoak egitea, tresnak eta materialak erabiliz, trebezia, zehaztasuna, arreta, muntatze lanak, desmuntatze lanak, abiadura, jauziak, objektuak eta makinak erabiltzea, etab. tartean izanik.

Helburua da trebetasunak garatzea eta bereziki imitatu, ezagutu eta hausnartu dezatela **lanbide** desberdinekin loturiko jardueren gainean, eta ohar daitezela zenbateko garrantzia duten horiek pertsonen bizitzan. Horretarako, ondokoa egin beharko dugu:

- ▶ Bermatu beharko dugu **neskek ere parte hartzen dutela jolas hauetan** eta jarduera hauek ez direla mutilen jolastzat hartzen. Horretarako, funtsezkoa izan daiteke aparte lan egitea, ezagutza gabekia dutelako, ohiturarik ez dutelako edo aurreiritziak dituztelako jolasean aritzeko zailtasunak dituztenekin.
- ▶ Jolas, mugimendu eta trebetasun hauek **erlazionatzea** nabarmenak diren **lanbideekin**, lanabes eta tresna jakin batzuekin jolastean, egoera, eremu eta ekintza jakin batzuk imitatuz (horma bat eraiki eta pintatzea, ebakuntza kirurgiko bat egitea, ibilgailu bat gidatzea, ordenagailu bat muntatzea...).

Baliabide on bat izan daiteke **istorioak kontatzea**. Istorio horiek bikoteka edo talde txikian **antzeztu** beharko dira. Adibidez:

- ▶ "Neskak bidean goaz, autoa gidatuz. Mutil ezagun batek gelditzeko keinua egin digu. Gelditu gara eta autora igo da. Gorpila zulatu zaigu. Autoa gelditu dugu. Mutilak matxura seinalea jarri du. Neska lanabesak hartu eta haiek erabiltzen hasi da: abatz-estalkia kendu, gorpila askatu, katua jarri, autoa igo. Zulaturiko gorpila kendu eta



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

hezkidetzak eta enplegua

Hezkidetzak gure ikasleendako berdintasunean oinarrituriko bizitzako hezkuntza ibilbide bat proposatzen du. Hots, Giza Eskubideak aplikatzea emakumei zein gizonei, eremu pribatu zein publikoan. Helburua beraz zera da, neskak zein mutilak **persona autonomoak** izan daitezela eta garatu daitezela haien banakako aukeren arabera, bizitzako eremu guztietan. Horretarako, nahitaezkoa da bai emakume zein gizonezkoek **autonomia ekonomiko** bat izatea. Hori laneko eremuan eskuratzen da.

mentalitate aldaketa

Autonomia ekonomikoa erdiesteko, neskek zein mutilek ezagutu eta gainditu behar dituzte **haien sexuari genero estereotipoek jarritako gizarte mugak**, garapen akademiko-profesionalari dagokionez. Nahiz eta formalki mutilen eta nesken arteko berdintasuna aitortzen dugun, praktikan, maiz inkontzienteki, indarrean daude **berdintasun printzipioaren aurkakoak** diren espektatiba, balorazio, motibazio eta abarrak, ikasleek ibilbide akademiko-profesionalak hautatzean sexu desberdintasuna mantentzen dutenak.

Neskek espezializazio batzuetara jotzen dute eta mutilek beste batzuetara. Neskek zein mutilek ez dituzte beraien buruak lanbide beretan ikusten. Gainera, mutilek neskek baino gehiago indartzen dute enpleguak haien bizitzan duen zentralitatea. Hezkidetzaren ikuspegitik, helburua da **batzuek zein besteek garatu ahal izan dezatela enpleguaren zentralitatea, errealitatean dauden aukera guztien artean hautatuz.**

ispiluan norberaren burua ikustea

Gure ikasleek ispiluari begiratzten diotenean, haien burua **lanbide eta enplegu mota orotarako gaiturik eta prestatunik** ikusi behar dute. Toki bateko oroitzapenezko argazkia egiteko, apainduriko silueta batzuk izaten dira, bertan burua sartzeko. Bada, horietan bezala, neskek zein mutilak beharrezkoa dute euren burua askotariko lanbideetan erakutsiko dituzten **esperientziak, irudiak eta oroitzapenak**, mutil edo neska izateagatik salbuespenik izan gabe.

ispilu ugari

Ugari izan daitezke ikasketa honetan balia ditzakegun ispiluak. **Ahalik eta formatu eta aukera gehien** erabili behar dugu:

- Jolas mota oro, bereziki sinbolikoa.
- Ipuinak, filmak, narrazioak, komikiak, telebista, etab.
- Antzerkia eta antzezpen mota oro, txontxongiloak...
- Kantuak, biko errimatuak...
- Publizitatea, iragarkiak, kartelak...
- Familia kideak, lanean dihardutenak hainbat eremutan.
- Ikastetxeko irakasleak eta irakasle ez diren langileak.

norberaren burua aldatu

Ispilu horietan guztietan ikusten eta **norberaren burua ikusten irakats diezaiekegu**. Aukera eman diezaiekegu, ikasteko:

- Oso garrantzitsua eta beharrezkoa dela lanbide bat, enplegu bat izatea, **bizitza proiektu pertsonal bat garatzeko autonomia ekonomikoa** ahalbidetuko duena.
- Enplegua zainketa bezain garrantzitsua dela, neskendako zein mutilendako. Ez zaiola enpleguari uko egin behar familia zaintzeko. Aitzitik, **ardurak partekatu** egin behar dira, denek ere egin ahal izateko lan batzuk eta besteak.
- Ispiluan ikusten denarekin jolas egin daitekeela. Alda daitekeela, probatu, saiatu, errepikatu... Hautatu daitekeela, hautatzeko aukera behar dugula. Mugarik gabe **hautatzea**, berdin neska zein mutil bagara, inork esan gabe "ezin duzu neska zarelako", "mutilak ezin dute".

berria jarri dute. Neskak gupil berriko torlojuak lotuko ditu...".

- ▶ "Haur eskola edo haurtzaindegi batean gaude. Neska hilabete gutxi haurtxo bat da, mutila heldua da, eta haren zaintzailea da. Haurtxoa negarrez hasi da. Mutila hurbildu zaio, hitz egiten dio, lasaitu dadin eskua ukitzen dio, hatzamarra ematen dio heldu dezan... Biberoiaren ordua da, ura berotu du, biberioia prestatu du, haurtxoari hizketan, kantuan eta laztanka ari zaio aldi oro, lasai egon dadin. Biberoiaren tenperatura probatu du eskugainean. Biberioia eman dio pixkanaka..."
- ▶ "Sutea izan da. Mutil bat isolatua gelditu da, atera ezinean. Larrialdietara deitu du. Suteen aurkako kamioia bertaratu da (mutila eta neska). Ekipoa jantzi dute. Tutu malguak zabaldu dituzte. Suhiltzaile mutilak tutu malgua erabili du, haren kidea den neska aurrera egin ahala, babesteko. Neska erreskaterako igo da. Aulkietan gora igo, aulkipetik ibili, batetik bestera salto egin... eta iritsi da giltzapean dagoen mutilarengana. Atea bota du, ikusi du mutilak ezin duela oinez ibili, bere lankideari deitu dio eta erakutsi dio non barna joan behar duen haiek dauden tokiraino. Mutila sorbaldatik eta hanketatik hartu eta erreskatatu egin dute..."

"GIZONAK LAN EGITEN DU, EMAKUMEAK LAN EGITEN DU..."

Gizonak zein emakumeak lanean erakusten dituzten ipuin, irudi, narrazio, horma-irudi, bideo, argazki eta abarrak bilatu eta aurkeztea, horietan edozein enplegu, lanbide kategoria edo lan eremu erakutsiz.

- ▶ Lanbideekin, lanabesekin eta makinariarekin, lantokiekin, lanpostuekin, prebentzioarekin eta laneko segurtasunarekin eta abarrekin zerikusia duten hitzen, aditzen, kartelen, irudien eta abarren **zerrendak egitea**.
- ▶ **Lanbidea bestelako jarduera, lan edo ardura pertsonalak betetzearekin lotzea**. Jarduera, lan edo ardura horiek pertsonen zainketaekin lotuak (familia, lagunak, etab.) zein pertsonalak (denbora eta norberaren gustuak) edo sozialak izan daitezke, kasu, aisialdia, dibertsioa, parte hartzea, gizarte ordezkartza, etab.

"BIDAIA ON!"

Gelako aukiekin garraibide handi eta konplexu bat irudikatu da, **hegazkina, itsasuntzia, trena...** . Bertan, gelakide guztiek bidaia luzea egingen dute.

- ▶ Neskek zein mutilak rol eta eginkizunak antzeztuko dituzte. Bidaiariez gain, langile mota guztiak izanen dira bertan: gidariak, zerbitzariak, langile teknikoak eta mantentze-lanetakoak, medikuak, segurtasun langileak, etab.
- ▶ Irakasleak egoera desberdinak asmatuko ditu (batzuk ohikoak eta normalak, beste batzuk ezustekoak izanen dira, larrialdiak, etab), ikasleek erabaki dezaten zer egin eta nola jokatu, kontuan izanik zeintzuk diren haiek antzezten dituzten lanbideak.
- ▶ Jolasa egiten dugun lehenaldian, haien paperak hautatzen utz diezaiekegu, eta horrela, hausnarketa abiarazi mutilak hautatu dituztenen eta neskek hautatu dituztenen gainean, eta zergatik egin duten hala, nor hautatu duen lehenbizi eta nor gelditu den bazter gelditu direnekin, etab. Jolasten dugun beste batzuetan bermatu behar dugu neskek eta mutilak rol mota orotan daudela, eta esplizitatu behar dugu eredu misto eta berdina hori dela egokiena eta positiboa guztiendako.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA

LEHEN HEZKUNTZA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Haur Hezkuntzarako aipaturikoak etapa honetako ikasleekin erraz egin daitezke, baldin eta:

- ▶ Lehen Hezkuntzako curriculumera eta ikasleen adinera egokitzen badira.
- ▶ Zaintetan eta familia arduetan erantzukizun partekatua duten gurasoei, pertsonak zaintzeko gizarte baliabideei... **bisitak eta elkarrizketak** egiten bazaizkie.

Ondoren aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independen- tean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa.

"GURE FAMILIEN LANeko ZUHAITZAK"

Ikasle bakoitzak haren familiari galdetu eta zerrenda eginen du haren **familia inguruan** (osaba-izebak, lehengusuak barne) **gizonak eta emakumeak dituzten enpleguekin**, hiru belaunalditan:

- ▶ Aitaxi-amatxiak.
- ▶ Gurasoak, osaba-izebak.
- ▶ Anai-arrebak, lehengusuak.

Ikasleen datu guztiakin laburpen-taula bat prestatuko da belaunaldi bakoitzeko, laneko datuak sexuaren arabera bereiziz. Taldeka, ondoren bateratzeko asmoz, ondokoa egiten ahal dugu:

- ▶ **Emakumeen eta gizonen enpleguen arteko desberdintasunak aztertzea hiru belaunalditako bakoitzean, garai bakoitzean:** Zein enplegu mota da nagusi emakumeen artean? Eta gizonen artean? Zergatik? Zeintzuk dira batzuen eta besteen lan baldintzak alde aurreko prestakuntzari, soldadari, lan kategoriari, ordutegiari, oporrei, gaixotasun bajari, langabeziari, jubilazioari... dagokionez? Zergatik ematen dira desberdintasun horiek? Zer zoz zaizkio?
- ▶ **Aztertu gizonen eta emakumeen enpleguaren arteko desberdintasunak, hiru belaunaldiak erkatuz:** Aldaketak eman dira, gauzak aldatu dira gure aitaxi-amatxien belaunalditik gurasoenera? Eta gurasoen belaunalditik gaur egunekora? Zer aldatu da? Zer zoz zaio aldaketa hori? Bada aldaketan joera edo norabide bat? Nolako izanen da gure ikasleen enplegua etorkizunean? Zergatik?



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

aukerak zabaltzea

Adin honetako ikasleekin, helburua da batez ere **lanbideen eta enpleguen gainean duten ezagutza eta interesa** zabaltzea. Alde batetik, etxean, ikastetxean, anbulatorioan, herriko dendetan... zuzenean ezagutu ditzaketenik haratago. Bestetik, lanbide bat eta enplegu bat izateko beharrezkoak diren urratsei dagokienez:

- Hautatzeko aukerak ezagutzea.
- Erabakitze eta hautatze prozesua.
- Prestakuntza ibilbidea.
- Enplegua bilatzea. Etab.

Baina batez ere, zer suposatzen duen lanbide bat eta enplegu bat izateak, **bizitza proiektu propio bat izateko aukerei** dagokienez. Eta gauza bera dena, alegia, zeinen zaila den gure bizitzaren agintea hartzea, ez badugu lanbiderik eta enplegurik.

oso garrantzitsua

Laneko bizitza zerbait urruna bazaie ere, eta ez badago haien bizipen zuzenetan ere, haiekin batera bizi diren helduen bizitzei dagokienez zerbait erabat hurbila zaie. Badakite gehiengoak enplegu bat duela, eta horri garrantzi handia ematen diotela eta denbora eta ahalegin handia eskaintzen diotela. **Badakite, halaber, lana galtzeko beldurrez izaten garela**, eta lana ez izatea arazo handi bat dela, agian, egoerarik makurrena. Baina baliteke hori guztia ez azaldu izana, eta ezta ere zergatik den horrela. Agian ez zaie aukerarik eman galdetzeko eta eztabaidatzeko. Baliteke haien inguruko eredu- tan, batez ere emakumeek, lanbidea eta enplegua uztea beste norbait zaintzeko.

norberaren bizitza zuzentzea

Gure ikasleek ulertu behar dute lanbidea eta enplegua horren garrantzitsuak direla gure gizartean, hain zuzen ere, funtsezkoak direlako **askatasunez eta autonomiaz** bizi ahal izateko gure bizitza. Ildo horretan, lana ez da soilik helduen kontu bat, baita ere zer izan nahi duten eta nola bizi nahi duten hartan jolastu nahi duten Lehen Hezkuntzako ikasleen kontua ere. Beraien bizitzaren jabe izan daitezzen hezi nahi ditugun Lehen Hezkuntzako ikasleen kontua ere bada.

ateak irekitzea

Hori egiteko modua, adin hauetan, batez ere atek irekitzea eta **aukerak ez ixtea** da. Haiek beraien erabakiak hartuko dituzte pixkanaka, eta beraien bidea egiten dute, baina zaila izanzen zaie hala egitea sexu batekoak edo besteak izateagatik bideak ixten bazaizkie edo desegokiak direla adierazten bazaie.

Ildo horretan, ondokoa egin dezakegur:

- **Lanbide eta enplegu asko** aurkeztu eta esan **egokiak** direla gaitasuna duen eta ikasi nahi duen zeinahi neska edo mutikorendako.
- Estereotipatuak ez diren lanbide edo enpleguen alde egin duten emakume eta gizonen **eredu alternatibo** asko aurkeztu.
- Lanbide ibilbide mota ororekin **jolastea eta amets egitea** erraztu, beraien burua ibilbide horietan ikus dezatela, aurreiritziarik eta konplexurik gabe.
- Nahi duten guztietan **iritziz alda dezaten** errespetatzea, beldurrik izan gabe esanen dutenari, edo huts egiteari.
- Ispilu lana egitea, eta galderak egitea, dilemak proposatzea, argudioak eskatzea, etab, helduz joan daitezzen. **Beraiei entzutea.**

hegoak ez moztea

- Interes falta saihestea, planak eta arrazoiak ez gutxiestea.
- Iritziak, espektatibak eta deskalifikazioak ekiditea.
- Exigitzeari ez uztea, haien aukeretan sinesteari ez uztea.
- Ikasleak beti ere berdintasunez ikustea, izendatzea eta tratatzea.

"LANBIDE BATEN ERRADIOGRAFIA"

Ikasle bakoitzak lanbide desberdin bat hautatuko du eta sakoneko lan bat egiten du haren gainean: zein ikasketa eta prestakuntza behar den, zertan datzan lan hori, zer ekoizten den edo zein zerbitzu ematen zaion nori, non betetzen den ogibidea, zein lanabes baliatzen diren, zein diren ordutegia eta laneko baldintzak, lanbide horretan aritzen diren pertsona ezagunak, egiten diren produktu ezagunak edo ematen diren zerbitzu ezagunak, etab.

- ▶ Jarduera bera birritan egiten dugu.
- ▶ Lehenbizikoan utzi egiten diegu ikertu nahi duten **lanbidea hautatzen**. Litekeena da lanbide ugaritasun handirik ez izatea. "Errepikatuak" dauden lanbideen azalpenak elkartuko ditugu. Lanbide berak errepikatzen dira mutilen eta nesken kasuan? Zeintzuk errepikatzen dira gehiago nesken artean? Eta mutilen artean? Zerri zor zaizkio desberdintasun horiek? Neskek egin ditzakete mutilek hautaturikoak? Zailtasunak izanen lituzkete? Zergatik? Mutilek egin ditzakete neskek hautaturikoak? Zailtasunak izanen lituzkete? Zergatik?
- ▶ Bigarren aldian, ikasleekin **zerrenda** bat osatuko dugu **izan daitezkeen enplegu berriekin**, hots, jardueraren lehen zatian aipatu ez diren lanbideekin. Bakoitzak hautatuko du bere ustez etorkizunean izan dezakeen enplegu desberdin bat, jada hautatuak daudenak errepikatu gabe, eta beste bat haren ustez egin ezin dezakeena. Zergatik uste du lanbide hori izan dezakeela? Zergatik ez beste? Haren gustuak eta zaletasunak direla eta? Bere ezaugarri eta trebetasunak direla eta? Sexuarengatik, neska edo mutila delako? Neskek hautaturiko lanbideen artean antzeko patroik edo ezaugarriarik badago? Eta baztertu dituztenen artean? Mutilek hautaturiko lanbideen artean antzeko patroik edo ezaugarriarik badago? Eta baztertu dituztenen artean? Etab.

"LANABESAK ETA TREBETASUNAK"

Helburua da zehaztea zein lanabes (erreminta, makina, ibilgailu...) eta bereziki, zein ikaskuntza edo trebetasun behar diren lanbide bat hala beste betetzeko.

- ▶ Aurreko jarduerako zerrendatik abia gaitzeko, edo zerrenda berri bat prestatu, adibidez, ikasleen artean boladan dagoen **film edo telebista saio batean**, gelan irakurtzen ari garen liburu edo ipuin batean edo curriculum arloren bateko testu liburuan edo irakurketa liburuan, programaturik dugun interesgune edo unitate didaktiko batean eta abarretan **agertzen diren lanbideekin**.

Ikasleek, taldeka lan eginez, lanbide horietako bakoitza lotu behar dute ondokoekin:

- ▶ **Tresna** eta lanabesak, makina eta ordenagailuak, ibilgailuak...
- ▶ **Ezagutza** eta prestakuntza, ondokoetarako: kalkulu matematikoa, abstrakzioarako gaitasuna, mintzamina, idazmina, analisia, sintesia, sormena eta berrikuntza, kudeaketa eta antolamendua, hizkuntzak, ingurunearen ezagutza, alfabetatze digitala, etab.
- ▶ **Gizarte eta lan arloko trebetasunak**: ordena, garbitasuna, puntualtasuna, jarraitutasuna, eginahalerako eta norberaren burua gainditzeko gaitasuna, autoestimua, entzuteko gaitasuna, lidergoa, empatia, adostasuna eta negoziazioa, gatazkak ebaztea, taldean lan egitea, gaitasun kritikoa, autonomia eta erantzukizuna, autokudeaketa, etab.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - DBH

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Lehen Hezkuntzarako aipaturikoak etapa honetako ikasleekin erraz egin daitezke, baldin eta:

- ▶ Bigarren Hezkuntzako curriculumera eta ikasleen adinera egokitzen badira.
- ▶ Bereziki gehitzen badira eskolari, lanari, ibilbide akademikoei, denboraren erabilerari eta abarri buruzko **datu estatistikoak**, horrela, gaur eguneko errealitatea inertzia edo ohituraz transmitituriko mito eta genero estereotipoekin erkatu ahal izateko.

Ondoren aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke, ikastetxeetan diren curriculum arlo eta programazioetan txertatzeko. Era berean, modu independentean ere landu daitezke, saio autonomo gisa edo berdintasunerako berariazko programazio baten parte gisa.

"LANERAKO GAITASUNAK ETA PERTSONAK"

Helburua bikoitza da:

- ▶ Emakumei eman ohi zaizkien gaitasunak (ordena, garbitasuna, jarraitutasuna...) eta gizonei eman ohi zaizkienak (erabakimena, erreflexu azkartasuna, agintea...) emakumeek eta gizonak, batzuk zein besteek betetzen dituzten **enplegu eta lanbideekin erlazionatzea**.
- ▶ Berrestea gaitasun horiek eta beste batzuk ez direla sexuaren araberakoak, ez dira sortzetikoak, aitzitik, **ikasi egiten dira** emakumeen eta gizonen sozializazio prozesuan, eta egokiak diren ikas-kuntzak eginez, sexu batekoek zein besteek ikas ditzakete, hori pertsona bakoitzaren gaitasun indibidualen araberakoa baita soilik.

Lehenik taldean eginen dugu lan, talde bat neskekin soilik eta beste bat mutilekin soilik. Talde bakoitzak zerrenda bat osatuko du, gure gizartean, nagusiki haien sexukotzat harturiko gaitasunekin. Bateratzeko orduan, neskek eta mutilek elkarrekin eztabaidatuko eta hausnartuko dugu ondokoen gainean:

- ▶ Zeintzun lan gaitasunengatik esaten da emakumeenak direla, eta ez gizonezkoenak? Eta alderantziz? Zergatik desberdintasun hori? Zeri zor zaio? Emakumeek ezin dituzte ikasi gizonei esleiturikoak, eta alderantziz? Zergatik ez dute egiten? Ez zaie halakorik irakasten? Zergatik?
- ▶ Zein lanetarako dira onak gaitasun horiek? Eztabaidan emakumeen eta gizonen enpleguaren gaineko datu estatistikoak sartu, sektoreka eta lanbideka. Gure gizartean emakumeek eta gizonak nagusiki betetzen dituzten lanbideekin bat egiten du? Badira gizonak, emakumei esleituriko gaitasunetako lanbideekin? Eta emakumeak "gizonen" gaitasunetako lanbideekin? Zergatik? Nola da posible?



kontsultategia

Adin honetako ikasleak gehien motibatzen dituen dinamiketako bat **kasu erreal edo gutxienez ere gertagarri eta sinesgarrien kontsultategia** da. Baliabide didaktiko honek aukera ematen die gaiak distantzia jakin bat mantenduz lantzeko, eta egoera eta zalantzak planteatzeko, horiek arraroak edo fantasiazkoak izanik ere.

Horri esker planteamentu jakin batzuen nolakotasunaren eta zergatien gaineko **bizipen eta argudioak** ezagutu ditzakete:

- Hautapenak eta erabakiak
- Okerrak eta zuzenketak.
- Zailtasunak eta ustekabeak.
- Laguntzak eta baliabideak.
- Baldintzak, ezaugarriak...

berdintasunerako

Berdintasunerako hezkuntzaren ikuspegitik, saiatu behar dugu kontsultategi akademiko-profesionalean:

- Neskek mutilek bezainbat parte har dezaten, mutilei kasuen proposamena eta erantzunen kudeaketa berenganatzen utzi gabe.
- Neskek beraien denbora eta espazioa izan dezatela eta senti dezatela gaia haiei ere badagokiela, mutilei bezainbat.
- Egon daitezela kontsultak lan munduan emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaren edo desberdintasunaren inguruan.
- Zeinahi alderdi akademiko-profesionalen gaineko kontsultek eta erantzunek esplizituki ikustarazi ditzatela emakumeak eta gizonak, batzuen eta besteen kasuan dagozkien ñabardurak erantsiz.

galderak egitea

Funtsezkoa da gure ikasleak gai izatea galderak egiteko eta beste ikaskide batzuen galderari entzuteko. Eta funtsezkoa da erantzunak bilatzea, **ikertu behar izatea, datuak, estatistikak, kopuruak... bilatu behar izatea.**

- Errealitateari hurbiltzeko eta berdintasunaren ameskeria ez pairatzeko datuak (ikus Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza).

- Planteaturiko gaiak erantzuteko datuak. Nahiz eta ez iritsi erantzun asegarri bat ematera, gutxienez ere, ñabardura gehiagoko galdera berri, zehatz eta egokietara iritsiko dira. **Ikasiz ikasten arituko dira.**

gaitzea

Gaitasun akademiko-profesionalaren oinarrian dago ezagutzen, trebetasunen, azturen eta jarrerren ikaskuntza.

Prozesu ohikoa da ikasleekin, baina jasotako genero sozializazioaren ondorioz, bakoitzaren ezaugarriak gorabehera, erantzun orokortu desberdina da bi taldeetako bakoitzean. Oro har, **neskak eta mutilak uste desberdinetatik abiatzen dira, baliabide desberdinekin eta itxaropen desberdinekin.** Horrek guztiak gaitzeko zailtasunak sortzen ditu, eta azken emaitza desberdinak.

ikasleak

Oro har, beti daude salbuespenak, baina batez besteko profileen erakusten dute neskek mutilek baino joera handiagoa dutela ezagutzak, azturak eta lanerako jarrera jarraituak balioesteko. Hauek, bestalde, joera dute neskek baino gehiago balioesteko trebetasun teknikoak eta jarrera irmoak eta fidakorrak. Bestetik, laneko merkatuak baliatu, errentagarri bihurtu, eta azkenik itxaronarazi eta betikotu egiten du espezializazio hori. Urrats berak, emaitza berak. Eta alderantziz.

Hezkidetzatik abiatuz, urteak, baliabideak eta itxaropenak aldatu behar ditugu, **neska-mutikoei berdintasunez** eskaintzeko haien **gaitasunen, interesen eta proiektu pertsonalen** arabera gaitzeko aukera.

"LANBIDEAK, EZAUGARRIAK ETA GAITASUNAK"

Helburua da azpimarratzea lanbideek **trebetasun instrumentalak baino zerbait gehiago** eskatzen dutela. Adibidez, Mekanikak eta Medikuntzak ezagutzak eta teknologia eskatzen dituzte, baina baita ere entzutea, ardura, ordena, garbitasuna, komunikazioa, talde lana...

- ▶ Hainbat lanbideen zerrenda prestatzea, gure ikasleen inguruko lanbideetatik abiatuz.
- ▶ Lanbide bakoitzean erantsi zeregin horretan aritzen denak behar dituen ezaugarriak eta gaitasunak. Adibidez: originala izatea, materialak ezagutzea eta erabiltzea, zaintzen jakitea, hizkuntzak, makinak ballatzea, jendaurrean hitz egiten jakitea, ordenagailuak erabiltzen jakitea, enpatia izatea, etab.
- ▶ Zeintzuk ikas daitezke eta zeintzuk ez? Neskek zein mutilek ikas ditzakete berdin? Zergatik? Nola? Non?

"NIRE EZAUGARRIAK ETA GAITASUNAK"

Helburua da **genero estereotipoak gainditzea**. Denek ditugu maskulinoz eta femeninoz jotako ezaugarriak. Gizon zein emakumeek horiek baliatu ditzakegu, garatu eta enplegu jakin batzuetara iristeko.

- ▶ Denon artean bi zerrenda eginen ditugu, maskulinoz eta femeninoz jotako ezaugarri eta trebetasun profesionalekin.
- ▶ Ikasle bakoitzak zerrenda bat prestatuko du ustez dituen ezaugarri eta gaitasunekin. Zerrenda maskulinoz zein femeninoz hartu beharko ditu, eta lanbide eta enplegu batekin eta bestearekin erlazionatu beharko ditu.
- ▶ Oro har, nire sexuari izendaturiko ezaugarriak hartu ditut? Eta beste sexukoak? Zergatik? Zein enplegu eta lanbidetarako balio didate? Gustatzen zaizkit lanbide horiek? Beste batzuk nahiago ditut? Zein gaitasun eskatzen dute? Badut halakorik? Ikas ditzaket? Zergatik? Nola? Zailtasunak izan ditzaket ezaugarri horiek garatzeko, sozialki beste sexukotzat joak badira? Zergatik? Nola konpon dezaket hori?

"LAN ASTE BATEKO ORDUTEGIA"

Jarduera hau "zainketaren etika eta autonomia" izeneko hirugarren ikaskuntzako materialean jaso da. Asteburuari buruzkoa da eta pertsonen zainketan zentratua dago.

- ▶ Jarduera modu berean gauzatzeko da, baina **asteko bost lan egunetan** zentratua. Egutegi bat egin beharrean ordutegi bat eginen da, eta batez ere lanbideari dagozkion alderdietan zentratuko da.

"NIRE BIZITZA... 15 URTE BARRU"

Jarduera hau "zainketaren etika eta autonomia" izeneko hirugarren ikaskuntzako materiala jaso da.

- ▶ Kasu honetan **lanbide-karrera garatzearekin** loturiko alderdiak azpimarratu behar ditugu, bereziki neskendako eredu jakin batzuei dagokienez, hain zuzen ere, zainketa erabat lehenesten duten nesken ereduak dagokienez. Izan ere, horietan, sistematikoki baztertzeko dira alderdi profesionalak, eta lehenesten neskendako familia harreman batzuk eta bizitza proiektu bat independentzia pertsonaletik urruti.

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKOA: BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA

IKASLEEKIN JARDUERAK EGITEKO ZENBAIT IDEIA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako aipaturikoak etapa honetako ikasleekin erraz egin daitezke, baldin eta:

- ▶ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengoko curriculumera eta ikasleen adinera egokitzen badira..
- ▶ **Emakumezkoen eta gizonzkoen laneko datuak** bereziki txertatzen badira, jarduera, kontratu, lanaldi, lan kategoria, langabezi... motaren arabera, profil profesionalak, lanbide heziketako datuak adarka, lan hitzarmenak, emakumezkoen eta gizonzkoen denboraren erabileraren gaineko datuak... horrela, gaur eguneko errealitatea inertziaz eta ohituraz transmitituriko genero esteretipoekin erkatu ahal izateko.

Ondoren aipatzen ditugun ideiak ere gauzatu daitezke. Jarduera hauek irekiak dira, eta aise molda daitezke curriculum arloetan txertatzeko edota, modu independentean, berariazko saioak egiteko.

"PROFESIONAL BATEN ITZALA"

Ikasle bakoitzak haren inguruko pertsona bat hautatu eta **elkarrizketatu, grabatu, jarraitu... egingen du haren lanbide zereginetan**. Zeregin horiek sakonean aztertuko ditu eta azkenean txostena edo erreportaia aurkeztuko die ikasgelako gainontzekoei.

- ▶ Ziurtatu behar dugu ez dituztela soilik lanbidearen **alderdi instrumentalak** edo teknikoak ikusten, aitzitik, **lana betetzeko baldintzak**, lanaldia eta ordutegia, familia eta laneko bizitza uztartzeko erraztasunak edo zailtasunak, diru-sarrerak eta gizarte estatusa, lankideekiko harremana, prestakuntzarako, sustapenerako eta hobekuntzarako aukerak, autonomia eta autokudeaketarako esparrua, etab.

"LAN BILA ARI NAIZ"

Ikasle bakoitzak aurkezpen gutun bat idatzi behar du, eta horrekin batera curriculuma, bete nahiko lukeen enplegu bat eskatzeko. Proposa diezaiekegu prentsa iragarkiak edo ekonomia atalak erabiltzeko.

- ▶ **Aurkezpen gutunak** balio behar die ikasleei hausnartzeko zergatik eta zertarako bilatu lana orokorki, zein partikulariki lan horri dagokionez, eta gainera, argudiatzeko zergatik uste duen lan hori behar bezala bete dezakeela.
- ▶ **Curriculumak** garrantzia eman behar dio ibilbide akademiko-profesionalari (ikasketak, hizkuntzak, musika, kirola...) eta baita ere lan- eta gizarte-ikasketak eta trebetasunei, eta gainontzeko pertsonen gaineko jarrera positiboari, bizitzaren eremu guztietan (partekaturiko erantzukizunak, enpatia, talde-lana, ordezkaritza eta lidergo postuak...).
- ▶ Desberdintasunak daude nesken eta mutilen gutunen eta curriculumen



**Nafarroako
Gobernua**

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetzalantzen

kasu errealak

Adin honetako ikasleak ikaskuntza honetarako gehien motiba ditzakeena eta gehien balioko diena da gizon eta emakumeen kasu errealak ezagutzea, ikustea horien **lanbideak, lanpostuak eta enpleguak** ikuspegi guztietatik.

Banakako kasu erreal zehatzak, bizitakoak eta sentiturikoak, eta datu erreal estatistikoak, orokorrak, kasu partikular horiek eta bere kasu partikularra kokatzeko benetako interpretazio marko eta kontrapuntu gisa, errealitate-tik hurbil.

Datu estatistiko orokorren kontrapuntu hori gabe, edozein kasu partikularrek gure ikasleak interpretazio erabat okerrera eraman ditzake. Berdintasunari dagokionez, jada erdietsitako berdintasunaren ameskeriari bidera ditzake.

emakumeak eta gizonak

Ikasleei kargu eta eginkizun antzekoak dituzten **gizon eta emakume langileak** aurkeztea zaila izan daiteke lan sektore batzuetan.

Baina beti dago aukera datu estatistiko orokorrak baliatzeko eta asimetria desberdin hori erabiltzeko, ikasleei ikustaraziz eta haiekin aztertzeko zein den gure gizarteetan emakumeen kalterako dagoen **diskriminazio horizontala eta bertikala**. Horizontala, emakume gutxi dagoelako sektore jakin batzuetan lanean, eta bertikala, emakume gutxi dagoelako zuzendari karguetan edo erabakiguneetan, lan mundu osoan.

ameskeriak

Era berean, ikasleekin landu behar dugu **jada erdietsitako berdintasunaren ameskeria**. Hori gertatzen da gizartean, zabaltzen denean badaudela jada emakumeak goi karguetan edo lehen ez zeuden sektoreetan lanean. Batzuetan, emakume horiek ikustaraztea eta horien lekukotza gehiegi kuantifikatzen dira, eta uste izaten da, beraiek ere hala uste izaten dute, benetan dauden kasuak baino gehiago daudela.

Frogatua dago, **gizon edo emakume gutxi batzuk daudenean lehenago halakorik ez zegoen gunetan**, berehala interpretatzen dela hor beste sexuaren presentzia masiboa eta ia parekoa dagoela, nahiz eta halakorik ez izan. "Desberdintasuna, diskriminazioa? Hori lehen izaten zen, gaur egun ez" esaten dugu, lasai aski, halako kasuetan. Eta argudiatzen dugu: "Badaude ingeniariak diren emakumeak". "Gizon aski dago erizaintza ikasten" "Badaude lehendakari andreak gobernuetan". "Nik badut lagun bat etxeko gizona dena" "Eta gero eta gehiago".

errealitateak

Hala ere, **datu estatistikoek** esaten digute zein den benetan ingeniari emakumeen ehunekoa erreal, edo erizaintzan matrikulaturiko mutilena, edo gobernuko lehendakari andreena edo etxeko gizonena. Gaur gaurkoz, ehuneko horiek baxuak dira, maiz hutsaren ondokoak, eta hazkunde benetan motela dute, eta areago, atzeraka ere ari dira beste garai batzuetako kopuruetara itzuliz. Familia eta lana bateratzeko neurriak erabiltzen dituzten gizonen benetako ehunekoa ere ezagutu dezakegu, edo lana zainketan aritzeko uzten duten emakumeena, etab.

Gure ikasleek **ezagutu** behar dituzte **errealitate estatistiko horiek, eta ezagutu behar dituzte horiekiko bestelakoak diren kasuak, adibidean eta ereduak**. Bi datuak ere errealitatearen parte dira, eta biak beharrezkoak dira erabakiak ezagumenez, irizpidez eta askatasunez hartu ahal izateko. Bi errealitate horiek dituzten abantaila, eragozpen eta zailtasunekin ezagututa soilik hautatu ahal izanen dute benetan askatasunez horien artean, **estatistikak errepikatzeareb edo estatistikak aldatzeko berritzearen artean**.

artean? Zeintzuk? Zergatik? Zein ondorio izan ditzakete batzuetako eta besteendako? Zer hobetu beharko lukete batzuek eta besteek?

"LANEKO ELKARRIZKETA"

Aurreko jardueratik abiatu gaitzke, edo lan eskaintza desberdinen gidoi laburrak sortu, edo oraintsukoak diren prentsako iragarkiak erabili.

- ▶ **Ikasleek onartzen dituzte laneako elkarrizketa baterako nahitaezkoak diren **paperak****: erlarrizketatzaileak (hiru lagun) elkarrizketatuak (beste hiru lagun). Helburua da elkarrizketak benetakoak balira bezala egitea. Bakoitzak bere elkarrizketa bere aldetik prestatuko du, gidoi batekin edo prentsa iragarki, gutun, curriculum... batekin. Talde elkarrizketatzaileak pentsatu beharko du zein galdera eginen dituen. Elkarrizketatuek berriz, zein erantzun emanen duten. Denek bizi dituzte bi egoerak, elkarrizketatuak diren hiru lagunak ondoren elkarrizketatzaile izanen dira, eta alderantziz. Mota guztietako taldeak izan behar dira: mutilak bakarrik, neskek bakarrik, mistoak baina mutilak gehiago direla, eta alderantziz, etab.
- ▶ **Elkarrizketen ondoren**, iruzkindu eta aztertu eginen dira, elkarrizketatzailearen ikuspegitik eta elkarrizketatuaren eta publikoarenetik: Nola sentitu dira? Zer suertatu zaie zailen? Tratamendu, galdera, tonu... bera jaso dute neskek eta mutilek? Elkarrizketatuen eta elkarrizketatzaileen jarrera, galdera eta estilo desberdinak izan dira? Zer ikusi du publikoak kasu bakoitzean? Zer aldatu, hobetu... beharko lukete batzuek eta besteek?

"NESKA/MUTIL LAGUNA DUT ETA BEKA BAT EMAN DIDATE ALEMANIAN IKASTEKO/LAN EGITEKO"

Ikasle bakoitza suposamendu horretatik abiatuko da. Suposamendu hori **aukera akademiko-profesional ontzat** emanen dugu eta ikasleak erabaki eta argudiatu eginen du beka hori aprobetxatu nahi duen edo ez, eta zergatik, eta horrekin batera, bizitza nola antolatuko duen eta nola antolatuko duen bikote-bizitza, baiezkoa eman ez gero. Bigarren zatian, nesken taldeak eta mutilen taldeak antolatuko dira, ondokoa erdiesteko:

- ▶ **Laburpen bat, ikusteko zenbat neskek eta zenbat mutilek** hautatu duten beka onartzea eta zenbatek ez. Onartzeko zein ez onartzeko argudiatuarrak arrazoien zerrenda bat, eta zenbat lagunek erabili duten. Bikote harremanen eta bizitza antolatzearen ereduaren laburpen zerrenda bat, antzekoak direnak elkartz.

Bukatzeke, laburpen horiek bateratu eginen dira:

- ▶ Zein **diferentzia** dago nesken eta mutilen artean beka onartzeari edo ez onartzeari dagokionez? Diferentziak daude beka onartzen duten nesken eta mutilen argudioen artean? Eta beka ez onartzearen artean? Zergatik?
- ▶ Neskek batez ere **lehentasuna** ematen diote harreman sentimentalari eta ez lan aukerari? Eta mutilek? Zergatik? Mutilek batez ere lehentasuna ematen diote lan aukerari eta ez harreman sentimentalari? Eta neskek? Zergatik?
- ▶ Mutil gehienek esaten dute **konponbidea** dela haien bikotea Alemaniara joatea? Neska gehienek ere hori esaten dute? Nork jartzen du bere proiektu pertsonala beste baten mende, eta nork ez? Bietako batek men egiten du edo biak moldatzen zaizkio elkarri? Bietako nork egiten du men? Zergatik? Zein ondorio izan ditzake? Etab.